



Lehendakaria / Presidente

Juan Ramón Ciprián Ansoalde

**Resolución 5/2017 ebazpena**

Recurso 2/2017 errekurtsua

Kidea / Vocal

M<sup>a</sup> Aranzazu Arana Learte

Idazkari - Kidea / Vocal - Secretaria

María Yeregui Hernández

FOMENTO DE CONSTRUCCIONES Y CONTRATAS S.A. eta SARTECH ENGINEERING S.L. sozietateek Gipuzkoako Ingurumen Konplexuaren (1 fasea) diseinu, eraikuntza, finantzazio, operazio eta mantenurako obra publikoko emakida-kontratua MERIDIAM INVESTMENTS SAS, URBASER S.A., ALTUNA Y URÍA S.A., CONSTRUCCIONES MOYUA S.A., CONSTRUCCIONES MURIAS S.A. eta LKS INGENIERÍA S.COOP konpainiek osatutako Aldi baterako Enpresa Elkarteari esleitzeko 2017ko urtarrilaren 31ko Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko Presidenteak emandako ebazpenaren aurka kontratazio arloan jarritako errekurtsu bereziaren kasuan, Kontratazio Errekurtsoen Foru Auzitegi Administratiboa, gaurko egunez egindako saioan, goran adierazten diren kideak bertan zirela, erabaki hau hartu du guztien adostasunarekin.

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por FOMENTO DE CONSTRUCCIONES Y CONTRATAS S.A. y SARTECH ENGINEERING S.L. contra la Resolución del Presidente del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa de 31 de enero de 2017 por la que se adjudica el contrato de concesión de obra pública para el diseño, construcción, financiación, operación y mantenimiento del Complejo Medioambiental de Gipuzkoa Fase 1 a la Unión Temporal de Empresas formada por las compañías MERIDIAM INVESTMENTS SAS, URBASER S.A., ALTUNA Y URÍA S.A., CONSTRUCCIONES MOYUA S.A., CONSTRUCCIONES MURIAS S.A. y LKS INGENIERÍA S.COOP, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada en el día de la fecha, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

**AURREKARIAK**

**LEHENA.-** 2017ko otsailaren 21ean Gipuzkoako Hondakinen Kontsortziorekin erregistroan aurkeztutako idatzi bidez, (...) jaunak, FOMENTO DE CONSTRUCCIONES Y CONTRATAS S.A. sozietatearen izenean eta hura ordezkatzuz, eta (...) jaunak, SARTECH ENGINEERING S.L. sozietatearen izenean eta hura ordezkatzuz, kontratazio arloko errekurtsu berezia jarri zuten ebazpen honen goiburuan aipatzen den egintzaren aurka.

Idatzi horrekin batera, honako dokumentazioa aurkeztu zuten: esku hartzen dutenen ordezkariak egiaztatzen duten agiriak, aurkaratutako ebazpena, kontratazio-organismoari zuzendutako errekurtsua jarri aurreko iragarkiaren kopia, azaroaren 14ko

**ANTECEDENTES DE HECHO**

**PRIMERO.-** Mediante escrito presentado en el registro del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa el día 21 de febrero de 2017, don (...), actuando en nombre y representación de FOMENTO DE CONSTRUCCIONES Y CONTRATAS S.A., y don (...), en nombre y representación de SARTECH ENGINEERING S.L., interpusieron recurso especial en materia de contratación contra el acto citado en el encabezamiento de esta resolución.

Al escrito de interposición se acompañan los documentos que acreditan la representación de los intervinientes, la resolución impugnada, copia del anuncio previo de la interposición del recurso dirigido al órgano de contratación, tal como exige

3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateratuaren (SPKLTB) 44.1. artikuluan aipatzen den moduan, eta errekurtsogileek beren eskubidearen oinarritzat erabili dituzten dokumentuak.

**BIGARRENA.-** Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioak igorritako errekurtsua eta kontratazio-espedita otsailaren 23an sartu ziren Auzitegira, eta hurrengo egunean, hilaren 24an, erakunde kontratatzailearen txostena jaso zen, errekurtsuari buruzkoa.

**HIRUGARRENA.-** SPKLTBko 46.3. artikulua betez, esleipendunari errekurtsoren berri eman zitzaion, bost egun balioduneko epean arrazoibideak aurkeztu ahal izateko, eta hala egin zuen 2017ko martxoaren 7an aurkeztutako idatzi bidez.

**LAUGARRENA.-** Errekurtsua esleipen-egintzaren aurka jarri denez, kontratazio-espeditaren izapidea bertan behera geratu da SPKLTBko 45. artikuluan xedatutakoaren arabera.

## ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

### Errekurtsoren onargarritasuna

**LEHENA.-** Errekurtsu berezi hau erregulazio harmonizatuari lotua dagoen eta SPKLTBko 14.1 artikuluan aurreikusitako obra publikoko emakida-kontratu bat esleitzeko egintza baten aurka jarri da, zeinaren balio estimatua 217.583.000 eurokoa baita, BEZ aparte.

Beraz, kontratazio alorreko errekurtsu berezia jar daiteke errekurritutako egintzaren aurka, hala xedatzen baita SPKLTBko 40. artikuluko 1.a) eta 2.c) ataletan.

Sektore Publiko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 120. artikuluan ezartzen diren Kontsorzioetako atxikipen-irizpideen arabera, Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioa zuzenbide publikoko erakunde bat da, Gipuzkoako Foru Aldundira atxikia, eta hala xedatzen da hartako indarreko Estatutueta 3.1. artikuluan

el artículo 44.1 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, aprobado por Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre (TRLCSP), y los documentos en los que las recurrentes fundan su derecho.

**SEGUNDO.-** El recurso y el expediente de contratación, remitidos por el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, tuvieron entrada en el Tribunal el día 23 de febrero, y un día más tarde, el 24, se recibió el informe de la entidad contratante acerca del recurso.

**TERCERO.-** En cumplimiento del artículo 46.3 TRLCSP, se dio traslado del recurso a la adjudicataria para que en el plazo de cinco días hábiles pudiera formular alegaciones, lo que hizo mediante escrito presentado el día 7 de marzo de 2017.

**CUARTO.-** Dado que el recurso se ha interpuesto contra el acto de adjudicación, la tramitación del expediente de contratación ha quedado en suspenso en virtud de lo dispuesto en el artículo 45 TRLCSP.


## FUNDAMENTOS DE DERECHO

### Admisibilidad del recurso

**PRIMERO.-** El presente recurso especial se interpone contra el acto de adjudicación de un contrato de concesión de obra pública sujeto a regulación armonizada, de los contemplados en el artículo 14.1 TRLCSP, cuyo valor estimado asciende a 217.583.000 euros, IVA excluido.

Por lo tanto, el acto recurrido es susceptible de recurso especial en materia de contratación por así disponer los apartados 1.a) y 2.c) del artículo 40 TRLCSP.

De acuerdo con los criterios de adscripción de los consorcios, establecidos en el artículo 120 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa es una entidad de derecho público adscrita a la Diputación Foral de Gipuzkoa, y así lo dispone el artículo 3.1 de sus



(Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2016ko abenduaren 21).

vigentes Estatutos (Boletín Oficial de Gipuzkoa de 21 de diciembre de 2016).

Hortaz, Auzitegi honi dagokio errekurtsoaren berri izateko eskumena, hain zuzen ere Kontratazio Errekurtsoen Foru Auzitegi Administratiboak sortu eta arautzeko irailaren 28ko 24/2010 Foru Dekretuko 2.1 artikulua emandakoa.

En consecuencia, la competencia para conocer del recurso corresponde a este Tribunal, al que viene atribuida por el artículo 2.1 del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

**BIGARRENA.-** Errekurtsoa SPKLTBko 42. artikuluan ezarritako legezketasun-betekizunak betetzen dituzten pertsonak jarri dute, 44.2. artikuluan aurreikusitako epearen barnea eta alde aurretik kontratazio-organoari jakinarazi ostean, 44.1. artikuluan aurreikusita bezala.

**SEGUNDO.-** El recurso ha sido interpuesto por personas que reúnen el requisito de legitimación establecido en el artículo 42 TRLCSP, dentro del plazo previsto en el artículo 44.2 y habiéndolo anunciado previamente al órgano de contratación en la forma prevista en el artículo 44.1.

### Lizitazioa eta esleipena

### Licitación y adjudicación

**HIRUGARRENA.-** 2016ko uztailaren 28ko akordio bidez, Gipuzkoako Hondakinen Kontsultazioaren Batzar Nagusiak kontratazio-espeditarearen hasiera onartu zuen, Gipuzkoako Ingurumen Konplexuaren (1 fasea) diseinu, eraikuntza, finantzazio, operazio eta mantenurako obra publikoko emakida bidez. Halaber, kontratuko Baldintza Administratibo Berezien Agiria (BABA) eta Baldintza Teknikoen Agiria (BTA) onartu zituen. Lizitazio-iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu zen abuztuaren 3an, Estatuko Aldizkari Ofizialean abuztuaren 4an eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean abuztuaren 10ean.

**TERCERO.-** Mediante acuerdo de 28 de julio de 2016 la Asamblea General del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa aprobó el inicio del expediente de contratación, mediante concesión de obra pública, del diseño, construcción, financiación, operación y mantenimiento del Complejo Medioambiental de Gipuzkoa Fase 1, así como los pliegos de cláusulas administrativas particulares (PCAP) y de prescripciones técnicas (PPT) del contrato. El anuncio de licitación fue publicado en el Diario Oficial de la Unión Europea el 3 de agosto, en el Boletín Oficial del Estado el 4 de agosto y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 10 de agosto de 2016.

Eskaintzak aurkezteko epean hiru enpresa-elkarteren proposamenak jaso ziren, Kontratazio Mahaiak, aurkezpen ordena jarraituz, 1 zenbakidun ABEE, 2 zenbakidun ABEE eta 3 zenbakidun ABEE izendatu zituenak:

En el plazo de presentación de ofertas se recibieron proposiciones de tres agrupaciones de empresas que la Mesa de Contratación, siguiendo el orden de presentación, designó como UTE nº 1, UTE nº 2 y UTE nº 3:

1 zenbakidun ABEE, hauek osatua:

UTE nº 1 compuesta por:

-CONSTRUCCIONES Y PROMOCIONES  
BALZOLA S.A.

-CONSTRUCCIONES Y PROMOCIONES  
BALZOLA S.A.

-VALORIZA SERVICIOS  
MEDIOAMBIENTALES S.A.

-VALORIZA SERVICIOS  
MEDIOAMBIENTALES S.A.

-VALORIZA GESTIÓN S.A.

-VALORIZA GESTIÓN S.A.

2 zenbakidun ABEE, hauek osatua:

UTE nº 2 compuesta por:

-MERIDIAM INVESTMENTS SAS  
-URBASER S.A.  
-ALTUNA Y URIA S.A.  
-CONSTRUCCIONES MOYUA S.L.  
-CONSTRUCCIONES MURIAS S.A.  
-LKS INGENIERIA S.COOP.

3 zenbakidun ABEE, hauek osatua:

-FOMENTO DE CONSTRUCCIONES Y  
CONTRATAS S.A.  
-SARTECH ENGINEERING S.L.

Beharrezko lizitazio-izapideak egin ostean, 2016ko abenduaren 27an Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Batzar Nagusiak, Kontratazio Mahaiak hala proposatuta, eskaintzen sailkapen-hurrenkera hau onartu zuen:

Lehendabizi, 2 zenbakidun ABEE, guztira 901,88 puntu erdietsita.

Bigarrenik, 3 zenbakidun ABEE, guztira 896,68 puntu erdietsita.

Hirugarrenik, 1 zenbakidun ABEE, guztira 631,61 puntu erdietsita.

Horrenbestez, 2 zenbakidun ABEE lizitatzailari hamar eguneko epean BABAko 22.5.2 klausulan adierazitako dokumentazioa aurkezteko eskatzea adostu zuen, SPKLTBko 151.2. artikuluan ezartzen den moduan.

Behin eskakizun hori betetan, 2017ko urtarrilaren 31n Kontsortzioko Presidenteak ebazpena eman zuen, zeinaren arabera kontratua 2 zenbakidun ABEE-ak aurkeztutako eskaintzari esleitzen baitzaio, ekonomikoki eskaintza onuragarriena izateagatik.

**LAUGARRENA.-** Lizitatzailerei urtarrilaren 31n igorri eta jakinarazitako ebazpen honen aurka, 3 zenbakidun ABEE-ko kide diren FOMENTO DE CONSTRUCCIONES y CONTRATAS S.A. eta SARTECH ENGINEERING S.L. sozietateek errekurso hau jarri dute, non Auzitegiari esleipena bertan behera uzteko eskatzen diote eta

-MERIDIAM INVESTMENTS SAS  
-URBASER S.A.  
-ALTUNA Y URIA S.A.  
-CONSTRUCCIONES MOYUA S.L.  
-CONSTRUCCIONES MURIAS S.A.  
-LKS INGENIERIA S.COOP.

UTE nº 3 compuesta por:

-FOMENTO DE CONSTRUCCIONES Y  
CONTRATAS S.A.  
-SARTECH ENGINEERING S.L.

Realizados los trámites licitatorios necesarios, el 27 de diciembre de 2016 la Asamblea General del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, a propuesta de la Mesa de Contratación, aprobó el siguiente orden de clasificación de las ofertas:

En primer lugar, la UTE nº 2, con un total de 901,88 puntos.

En segundo lugar, la UTE nº 3, con un total de 896,68 puntos.

En tercer lugar, la UTE nº 1, con un total de 631,61 puntos.

En consecuencia, acordó asimismo requerir al licitador UTE nº 2 para que en el plazo de diez días presentase la documentación indicada en la cláusula 22.5.2 del PCAP, tal como establece el artículo 151.2 TRLCSP.

Una vez cumplimentado el requerimiento, en fecha 31 de enero de 2017 el Presidente del Consorcio dictó resolución por la que se adjudica el contrato a la oferta presentada por la denominada UTE nº 2, por tratarse de la oferta económicamente más ventajosa.

**CUARTO.-** Contra esta resolución, que fue remitida y notificada a los licitadores el mismo día 31 de enero, FOMENTO DE CONSTRUCCIONES Y CONTRATAS S.A. y SARTECH ENGINEERING S.L., componentes de la denominada UTE nº 3, han interpuesto el presente recurso, en el que solicitan del Tribunal que anule la adjudicación y



1. Oro har, Donostiako 1 zenbakidun Administrazioekiko Auzien Epaitegiak emandako 255/2016 Epaia kontuan hartuz, esleipenaren deuseztasuna deklara dezala, objektua galtzeagatik.
2. Subsidiarioki, aurreko asmoa aintzat hartuko ez balitz, ABEE esleipenduna kanpora dezala eta egintzak atzeratzea ados dezala kontratazio-organoak esleipenaren ebazpen berria eman dezan ekonomikoki onuragarriena den eskaintzaren alde.
3. Subsidiarioki, aurreko asmoak aintzat hartuko ez balira, esleipena bertan behera utz dezala errekurtso honetan deskribatutako esleipen-irizpideak bidegabe balioetsi eta aplikatzeagatik, egintzak balioespen horretara arte atzeratuz, hura zuzendu eta esleipenaren ebazpen berria emanaz FCC-SARTECH ABEE-k egindako eskaintzaren alde, ekonomikoki onuragarriena izateagatik.
4. Subsidiarioki eta *ad cautelam*, aurrez adierazitako eskaera onartzen ez bada, zehazki, eskaintza ekonomikoaren irizpidea balioesteari buruzkoa, irizpide hori deuseztatu dezala, eta balio-judizioaren baitako irizpideen balioespena deuseztatu dezala eta, horrekin, lizitazioa ere deuseztatu dezala.
1. Con carácter principal, a la luz de la sentencia 255/2016 del Juzgado de lo Contencioso-Administrativo nº 1 de San Sebastián, declare la nulidad de la adjudicación, por pérdida sobrevenida de objeto.
2. Con carácter subsidiario, para el caso de que no fuera estimada la pretensión anterior, excluya a la UTE adjudicataria y acuerde la retroacción de actuaciones a fin de que el órgano de contratación dicte nueva resolución de adjudicación a favor de la oferta económicamente más ventajosa.
3. Con carácter subsidiario, para el caso de que no fueran estimadas las pretensiones anteriores, anule la adjudicación por la ilegal valoración y aplicación de los criterios de adjudicación descrita en este recurso, con retroacción de las actuaciones al momento de tal valoración, corrigiéndola y dictando nueva resolución de adjudicación a favor de la oferta de la UTE FCC-SARTECH, por ser la oferta económicamente más ventajosa.
4. Con carácter subsidiario y *ad cautelam*, para el caso de que no se admita el pedimento anterior respecto, específicamente, a la valoración del criterio relativo a la oferta económica, declare la nulidad de dicho criterio, así como la nulidad de la valoración de los criterios sujetos a juicio de valor, y, con ello, de la licitación.

#### **Lizitazioa objektua galtzeagatik deuseztatzeko asmoari buruz**

**BOSGARRENA.-** Kontratuko esleipen-egintzaren aurka berariaz zuzendutako inpregnazioaren arrazoiak eman aurretik, errekurtsoaren arabera ezinbestekoa da Donostiako 1 zenbakidun Administrazioekiko Auzien Epaitegiak abenduaren 23an emandako 255/2016 zenbakidun epaiak, zeinaren kopia

#### **Sobre la pretendida nulidad de la licitación por pérdida sobrevenida de objeto**

**QUINTO.-** Antes de formular los motivos de impugnación dirigidos propiamente contra el acto de adjudicación del contrato, el recurso considera imprescindible analizar los efectos que puede tener en la presente licitación la sentencia nº 255/2016, de 23 de diciembre, dictada por el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo nº 1 de

helarazten baita, lizitazio honen kasuan izan ditzakeen eraginak aztertzea.

San Sebastián, cuya copia aporta.

Gogorarazten da 2010. urtean Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak, GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA S.A.U. (GHK S.A.U.) sozietatearen bidez, Gipuzkoako Hondakinak Kudeatzeko Zentroa eraiki, abiarazi eta ustiatzeko obrak gauzatzeko proiektua, zuzendaritza fakultatibokoa, idazteko kontratu mistoa esleitzeko lizitazioa deitu zuela; kontratua hemen parte hartzen duen erakundeetako bat kide modura zuen ABEE bati esleitu zitzaion 2011ko martxoaren 16an, izan ere, FOMENTO DE CONSTRUCCIONES Y CONTRATAS S.A., sozietatea bertako kide zen SERBITZU ELKARTEA S.L., ALTUNA Y URIA S.A., CONSTRUCCIONES MURIAS S.A. eta AE&E INOVA AG sozietateekin batera. Gero, kontratua, 2011ko maiatzaren 12an formalizatu zen.

Recuerda que en el año 2010 el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, a través de su sociedad instrumental GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA S.A.U. (GHK S.A.U.), convocó una licitación para adjudicar el contrato mixto para la redacción del proyecto, dirección facultativa, ejecución de las obras de construcción, puesta en marcha y explotación del Centro de Gestión de Residuos de Gipuzkoa; contrato que fue adjudicado el 16 de marzo de 2011 a una UTE formada por una de las entidades aquí recurrentes, FOMENTO DE CONSTRUCCIONES Y CONTRATAS S.A., junto con SERBITZU ELKARTEA S.L., ALTUNA Y URIA S.A., CONSTRUCCIONES MURIAS S.A. y AE&E INOVA AG, y formalizado el 12 de mayo de 2011.

Haatik, GHK S.A.U. sozietateko administrazio kontseiluan ikur politikoa aldatzearen ondorioz, kontratu hura ezeztatu egin zen erakunde kontratatzailearen eta ABEE kontratistaren arteko adostasunez 2013ko azaroaren 13an; ebazpen hori beranduago berretsi egin zen, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko Batzar Nagusiaren 2013ko azaroaren 25eko akordio bidez.

Sin embargo, como consecuencia del cambio de signo político producido en el seno del Consejo de Administración de GHK S.A.U., aquel contrato fue resuelto por mutuo acuerdo entre la entidad contratante y la UTE contratista el día 13 de noviembre de 2013; resolución confirmada posteriormente por acuerdo de la Asamblea General del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa de 25 de noviembre de 2013.

Errekurtsioan gaineratzen denez, kontratu haren gaineko elkarren adostasuneko ebazpena aurkaratu egin zuten esleipen-fasean Kontsortzioko eta hartako sozietate instrumentaleko arduradun politiko izan zirenek, San Marko eta Debabarrenako Mankomunitateen bidez. Horren ondorioz, 31/2014 prozedura arrunta eman da, errekurritutako akordioa deuseztatzen duen 2016ko abenduaren 23ko epaiarekin ebatzi dena.

El recurso añade que la resolución de mutuo acuerdo de aquel contrato fue impugnada por quienes durante la fase de adjudicación habían sido los responsables políticos del Consorcio y de su sociedad instrumental, a través de las Mancomunidades de San Marcos y Debabarrena, dando lugar al procedimiento ordinario 31/2014 que ha sido resuelto mediante la aludida sentencia de 23 de diciembre de 2016, la cual anula el acuerdo recurrido.

Bada, errekurtsogileek argudiatzen dutenez, kontratu hartako ebazpena deuseztatzeak berekin dakar berehala haren indarraldia berreskuratzea eta ebazpen horren aurreko unean zegoen egoera berrezarri behar da. Lizitazio hau eta gerora esleipendunarekin formalizatzeko kontratua deusezak izan daitezke erabat, kontuan hartuz, adierazten dutenaren arabera, ezin direla bi

Pues bien, las recurrentes aducen que la anulación de la resolución de aquel contrato produce como efecto inmediato que recobre su vigencia y que deba restablecerse la situación que existía en el momento inmediatamente anterior a dicha resolución. La presente licitación, y el ulterior contrato que se formalice con el adjudicatario, podrían estar viciados de nulidad radical, habida



administrazio-kontratu aldi berean egon kausa eta helburu beraren inguruan.

Zehazki, argudiatzen dute kontratu berriaren esleipenak erabateko deuseztasunerako bi kausa ekar ditzakeela: ezinezko edukidun egintza bat izango litzateke [Herri Administrazioen Administrazioaren Jardunbide Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47.1.c) artikulua], izan ere, ezin da kontratu bera birritan esleitu; eta kontratua bete dadila saihesteko asmoz emandako epaiaren aurkako egintza bat izango litzateke [APEL 47.1.g) artikulua, Administrazioekiko Auzien Jurisdikzioa arautzeko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 103.4. artikuluari dagokionez].

Argudio horiek oinarritzat hartuz, errekurtsogileek esleipena deuseztat deklaratu dezagula eskatzen dute, objektua galtzeagatik.

Hasteko, hala errekurtsogileek nola kontratazio-organoak eta esleipendunak adierazten dute aipatutako epaia ez dela irmoa, izan ere, apelazioan errekurritu egin da.

Bigarrenik, Auzitegi honek ez du eskumenik emandako epaien aurkakotzat jotako egintzak deuseztat deklaratzeko, izan ere, AUJL legearen 103.5. artikulua araberak, deklarazio hori epaia, irmoa izan ostean, emateko ardura duen organo jurisdikzionalaren eskumena da, aldeak aginduta eta AUJL legearen 109. artikuluko 2. eta 3. ataletan aurreikusitako izapideen arabera.

Eta, hirugarrenik, Auzitegia ez dator bat aipatu epaiaren bidez bere garaian elkarren adostasunarekin ebatzitako kontratuak indarraldia berreskuratzen duela dioen tesiarekin.

Zuzenbidezko hirugarren oinarrian epaian errekurtsoren helburua zehazteko ahalegina egiten da eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioak hura ezagutzeko eskumenik duen egiaztatzea, eta ondorio hau ateratzen du, hots, aurkaratzen dena 2013ko azaroaren 25eko Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioaren Batzar

cuenta de que, según afirman, no resulta posible la coexistencia de dos contratos administrativos sobre la misma causa y objeto.

En concreto, alegan que la adjudicación del nuevo contrato podría incurrir en dos causas de nulidad de pleno derecho: sería un acto de contenido imposible [artículo 47.1.c) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas], pues no se puede adjudicar dos veces el mismo contrato; y sería un acto contrario al pronunciamiento de la sentencia, dictado con la finalidad de eludir su cumplimiento [artículo 47.1.g) LPAC en relación con el artículo 103.4 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa].

Con base en estos argumentos las recurrentes solicitan que declaremos la nulidad de la adjudicación por pérdida sobrevenida de objeto.

Para empezar, tanto las recurrentes como el órgano de contratación y el adjudicatario informan de que la aludida sentencia no es firme, puesto que ha sido recurrida en apelación.

En segundo lugar, este Tribunal no es competente para declarar la nulidad de los actos que se reputen contrarios a los pronunciamientos de las sentencias, puesto que, a tenor del artículo 103.5 LJCA, tal declaración compete en exclusiva al órgano jurisdiccional a quien corresponda la ejecución de la sentencia, una vez que sea firme, a instancia de parte y por los trámites previstos en los apartados 2 y 3 del artículo 109 LJCA.

Y en tercer lugar, el Tribunal no comparte la tesis según la cual la sentencia en cuestión supone la reviviscencia del contrato resuelto en su día de mutuo acuerdo.

En su fundamento de derecho tercero la sentencia trata de precisar cuál es el objeto del recurso y de verificar si la jurisdicción contencioso-administrativa es competente para conocer del mismo, y llega a la conclusión de que lo que se impugna es el acuerdo de la Asamblea General del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa de 25 de



Nagusiaren akordioa dela, GHK S.A.U. Sozietatearen Administrazio kontseiluak hartutako erabakia berrestekoa, 2011ko maiatzaren 12an bi aldeek sinatutako kontratua kontratistarekin ados egonik ebazteari buruzkoa. Dena den, Kontsortzioa zuzenbide publikoko erakunde bat da eta bere egintza administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenaren kontrolpean daude. Horrenbestez, epaiak ukatu egiten du kontrako jurisdikziorik eza eskarien prozesuzko ordezkarietatik, zeintzuen arabera gaia auzitegi zibiletan jorraztekoa baitzen. Eta gaia sakontasunez aztertu ondoren, ondorioztatzen du errekurtsioa ontzat hartu behar dela, aurkaratutako administrazio-ebazpena deuseztatuz eta ondorioz gabe utziz, zuzenbidearen arabera ez izateagatik.

Izan ere, GHK S.A.U. sozietatearen eta ABEE esleipendunaren artean sinatutako kontratua pribatua zen, GHK kapital publikoko Merkataritza Sozietatea baita, Herri Administrazio izaera ez duena (Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legearen 20.1. artikulua, kontratu hartan aplikagarria). Haren ondorioak eta etetea zuzenbide pribatuaren arabera ziren (20.2. artikulua) eta jurisdikzio-ordena zibilar zegoen kontratuaren ondorio, betetze eta etetearekin lotuta aldean artean sortutako ezadostasunak ebaztea (21.2. artikulua).

Horrenbestez, epai honetatik ez dago ondorioztatzerik 2013an elkarren adostasunarekin ebatzitako kontratuak indarraldia berreskuratu duenik. Deuseztatzen dena ez da kontratuzko ebazpenaren akordioa, baizik eta hura berresteko administrazioaren erabakia, administrazioarekiko auzien errekurtsioa balizko objektu bakarra hori baita. Kontratu hura ebatzita dago behin betikoz eta GHK S.A.U. sozietateak kontratistari indemnizazioa eman zion bi aldeek adostutako baldintzetan, eta Hondakinen Kontsortzioak hala jasotzen du bere txostenean: 8.190.000 euroko indemnizazioa gehi beste 2.810.000 euro sortutako gastuengatik.

Epaiak dioenez, Administrazio Zuzenbidearen ikuspegitik, ez zen hala gertatu behar eta erabakia berrestean Hondakinen Kontsortzioaren Batzar

noviembre de 2013 que ratificó la decisión del Consejo de Administración de GHK S.A.U. de resolver de mutuo acuerdo con el contratista el contrato firmado por ambas partes el 12 de mayo de 2011. Ahora bien, el Consorcio es una entidad de derecho público cuyos actos quedan sometidos al control del orden jurisdiccional contencioso-administrativo, por lo que la sentencia rechaza la falta de jurisdicción opuesta por la representación procesal de los demandados, que sostenían que el asunto corresponde a los tribunales civiles. Y después de examinar el fondo del asunto concluye que el recurso debe ser estimado, anulando la resolución administrativa impugnada y dejándola sin efecto por no ser ajustada a derecho.

Y es que el contrato celebrado entre GHK S.A.U. y la UTE adjudicataria era un contrato privado, puesto que GHK es una sociedad mercantil de capital público que no tiene la condición de Administración Pública (artículo 20.1 de la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, aplicable a aquel contrato). Sus efectos y extinción se regían por el derecho privado (artículo 20.2) y para resolver las controversias que surgieran entre las partes en relación con los efectos, cumplimiento y extinción del contrato era competente el orden jurisdiccional civil (artículo 21.2).

Por lo tanto, de esta sentencia no cabe inferir que el contrato resuelto en 2013 de mutuo acuerdo ha revivido. Lo que se anula no es el pacto de resolución contractual sino la decisión administrativa de ratificarlo, único objeto posible del recurso contencioso-administrativo. Aquel contrato está definitivamente resuelto y GHK S.A.U. indemnizó al contratista en los términos acordados por ambas partes, que el Consorcio de Residuos recoge en su informe: 8.190.000 euros de indemnización más 2.810.000 euros por gastos generados.

La sentencia dice que, desde el punto de vista del Derecho Administrativo, no debió ser así, y que, al ratificar la decisión, la Asamblea General del





Nagusiak botere desbideratzea gauzatu zuen. Horretatik hainbat ondorio erator daitezke, horien artean norberak bere erantzukizunak beregain hartzeko premia agian, baina ez dagoeneko iraungita dagoen kontratu pribatu bat berrezartzea.

Une honetan zilegi den kontratu bakarra Hondakinen Kontsortzioak esleitu duena da. Modu horretan, amaiera ematen zaio 2016ko uztailaren 28an abiarazitako lizitazio-prozedurari, eta ezinezkoa da aurreko kontratuak indarraldia berreskuratzea, izan ere, adierazitakoaz landa, gaur egun ezinezkoa izango litzateke kontratu hura betetzea Kontsortzioaren txostenean azaltzen diren arrazoiak direla medio.

Halaxe da, txostenean adierazten denez, kontratuaren ebazpenaren ondorioz GHK S.A.U. sozietateak Inbertsioen Europako Bankuarekin eta banku pribatuarekin sinatutako finantzazioa galdu egin zen. GHK S.A.U. sozietateak dagoeneko ezin du zerbitzua zuzenean kudeatu, eta horregatik lizitatu du obra publikoko emakida-kontratu bat Kontsortzioak, eta ez bere sozietate instrumentalak.

Ondorio modura, errekurtsoaren lehen arrazoi hau ezestea dagokio.

### **ABEE esleipenduna baztertzeko asmoari buruz**

**SEIGARRENA.-** Errekurtsogileen arabera, esleipenduna prozeduratik baztertu behar zen, izan ere, enpresa-elkarte horretako kide den konpainietako batek, MERIDIAM INVESTMENTS SAS sozietateak, ez du gutxienezko berezko kaudimen ekonomiko eta finantzarioa egiaztatu. Eta haien arabera, betekizun hori saihestezina da enpresa-elkarteko kideen arteko kaudimenaren metaketa eta integraziorako mekanismoak jokoan sartzeko. Horien arabera, ez da aski enpresa-elkarteak BABAn kaudimen ekonomikoari dagokionez eskatutako betekizunak osorik betetzearekin, eta enpresa-elkarteko kide bakoitzak gutxienezko berezko kaudimena egiaztatu behar du, gerora metatzearen gorabehera.

Consortio de Residuos incurrió en desviación de poder. De ello podrían derivarse determinadas consecuencias, entre ellas quizás la exigencia de responsabilidades, pero no el restablecimiento de un contrato privado ya extinguido.

El único contrato posible en este momento es el que ha sido adjudicado por el Consortio de Residuos, poniendo así fin al procedimiento de licitación iniciado el 28 de julio de 2016, y lo que resulta imposible es la reviviscencia del contrato anterior, porque, además de lo dicho, el cumplimiento de aquel contrato no sería hoy posible por las razones que explica el informe del Consortio.

En efecto, señala el informe que la resolución del contrato dio lugar a la pérdida de la financiación firmada por GHK S.A.U. con el Banco Europeo de Inversiones y la banca privada. Ya no es posible que GHK S.A.U. gestione el servicio de forma directa, y por eso se ha licitado por el Consortio, y no por su sociedad instrumental, un contrato de concesión de obra pública.

En conclusión, este primer motivo del recurso debe ser desestimado.

### **Sobre la pretendida exclusión de la UTE adjudicataria**

**SEXTO.-** Sostienen las recurrentes que la adjudicataria debió haber sido excluida del procedimiento porque una de las compañías integrantes de la agrupación, MERIDIAM INVESTMENTS SAS, no ha acreditado un mínimo de solvencia económica y financiera propia, requisito ineludible, según dicen, para que pueda entrar en juego el mecanismo de la acumulación e integración de la solvencia entre los participantes de la agrupación. A su entender, no es suficiente con que la agrupación cumpla en su conjunto con los requisitos de solvencia económica exigidos por el PCAP, sino que cada miembro de la agrupación ha de acreditar al menos un mínimo de solvencia propia, con independencia de su acumulación posterior.

Hasteko, gogorarazi behar da SPKLTBko 62. artikularen arabera, sektore publikoko kontratuak egiteko, kontratazio-organoak kaudimen ekonomiko, finantzario eta profesional edo teknikoari dagokienez zehazten dituzten gutxieneko baldintzak betetzen dituztela egiaztatu behar dutela enpresariak. Horiek, egiaztatze beharrezkoa den dokumentazioarekin batera, lizitazio-iragarkian adieraziko dira eta kontratuaren pleguan zehaztuko dira, objektuarekin lotuta egon beharko dutelarik eta harekiko proportzionalak izan behar dutelarik.

Kaudimena egiaztatze bideei dagokionez, SPKLTBko 74.1. artikuluan xedatzen duenez *“kaudimen ekonomiko eta finantzario eta tekniko edo profesionala kontratazio-organoak zehaztutako dokumentuak aurkeztuta, 75-79 bitarteko artikuluan aurreikusten direnen artean, egiaztatuko da”*.

Kontratuaren BABAko 18.2.1. klausulan zehazten denez, enpresa-talde batek sinatutako proposamenak aurkeztuko balira, enpresa osatzen dutenen izenak eta inguruabarrak, kontratua formalizatu bitartean Administrazio Kontratazailearen aurrean duen erantzukizun solidarioa eta enpresa bakoitzak taldearen barnean duen partaidetzaren portzentajea adierazteko dokumentu bat gaineratuko da. Enpresa-elkarteak ordezkari bakar bat izendatuko du guztientzat.

Bestalde, 25. klausulan ezartzen denez, esleipendunak helburu jakineko sozietate bat (sozietate emakidaduna) eratze eskritura publiko bat egitera derrigorturik dago. Sozietate hori izango da kontratuko titularra. Esleipenduna lizitatzaille-elkarte bat izango balitz, sozietate emakidadunak eskaintzan adierazitako partaidetza-portzentajeak errespetatu beharko ditu.

Kaudimen ekonomiko eta finantzarioko betekizunei dagokienez, 18.2.2. klausulan zera adierazten da:


Hay que empezar por recordar que, a tenor del artículo 62 TRLCSP, para celebrar contratos con el sector público los empresarios deberán acreditar estar en posesión de las condiciones mínimas de solvencia económica y financiera y profesional o técnica que se determinen por el órgano de contratación, las cuales, junto con la documentación requerida para acreditarlas, se indicarán en el anuncio de licitación y se especificarán en el pliego del contrato, debiendo estar vinculadas a su objeto y ser proporcionales al mismo.

En cuanto a los medios de acreditar la solvencia, el artículo 74.1 TRLCSP dispone que *“la solvencia económica y financiera y técnica o profesional se acreditará mediante la aportación de los documentos que se determinen por el órgano de contratación de entre los previstos en los artículos 75 a 79”*.

El PCAP del contrato establece en la cláusula 18.2.1 que en el supuesto de que se presenten proposiciones suscritas por una agrupación de empresarios se incorporará un documento en el que consten los nombres y circunstancias de los que la componen, su responsabilidad solidaria frente a la Administración contratante hasta la formalización del contrato, así como el porcentaje de participación que corresponda a cada empresa en la agrupación. La agrupación nombrará un representante único para todos ellos.

Por su parte, la cláusula 25 obliga al adjudicatario del contrato a otorgar escritura pública de constitución de una sociedad de propósito específico (la sociedad concesionaria), que será la titular del contrato. Si la adjudicataria fuera una agrupación de licitadores, la sociedad concesionaria deberá respetar los porcentajes de participación comprometidos en su oferta.

En lo relativo a los requisitos de solvencia económica y financiera la cláusula 18.2.2 dice lo siguiente:



*“Lizitatzailleek, hala nazionalek nola atzerrikoek, kontratua egikaritzeko kaudimen ekonomiko eta finantzario egokia erakutsi beharko dute. Bitarteko hauekin guztiekin egiaztatuko da hori eta jarraian zehazten diren irizpideak betez.*

*“Los licitadores, tanto nacionales como extranjeros, deberán demostrar una solvencia económica y financiera apropiada para la ejecución del contrato. Se acreditará mediante todos y cada uno de los siguientes medios y ajustándose a los criterios que a continuación se definen.*

*Atzerriko lizitatzailleen kasuan, eskatutako dokumentazioarekin batera, zinpeko itzulpena eta informazio ekonomikoa (eurotan) aurkeztu beharko dituzte. Erreferentziazko kanbio-tasa 2015eko abenduaren 31ko itxiera ofizialeko kanbio-tasa, Espainiako Bankuak argitaratutakoa, izango da.*

*En el caso de licitadores extranjeros, deberán aportar la documentación requerida junto con una traducción jurada y la información económica en divisa euros. El tipo de cambio de referencia será el tipo de cambio de cierre oficial al 31/12/15 publicado por el Banco de España.*

a) *Lizitatzailleek, hala nazionalek nola atzerrikoek, kaudimen ekonomiko eta finantzarioa justifikatzeko urteko negozio-bolumen orokorrari buruzko adierazpena aurkeztu beharko dute, HIRUREHUN MILIOI EUROko (300 milioi euro) kopurua berdindu edo gainditzen duela egiaztatzea, batera kalkulaturik.*

a) *Los licitadores, tanto nacionales como extranjeros, deberán justificar su solvencia económica y financiera mediante la presentación de una declaración sobre el volumen global de negocios en cómputo anual que acredite que iguala o excede la cantidad de TRESCIENTOS MILLONES DE EUROS (300 millones de euros) calculados conjuntamente.*

*Enpresa bakoitzak bere talde konsolidatuko fakturazioa duela ulertuko da. Horretarako, enpresa nagusiak igorritako konpromiso espezifiko gutun bat aurkeztu beharko du.*

*Se entenderá que cada empresa cuenta con la facturación del grupo consolidado del que forme parte, para lo cual deberá aportar una carta de compromiso específico de su matriz.*

***Proposamena edo eskaintza hautagai batek elkarrekin jardungo luketen erakunde ugariren ordezkari modura egingo balu, parte hartzen duen erakunde bakoitzak eskuratutako zenbatekoarekin egiaztatu ahal izango da negozio-bolumen orokorra, betiere, erakunde horietako bakoitzak esleipendunak eratuko duen helburu jakineko sozietatearen kapital sozialaren % 25a ordezkatzeko badu.***

***En caso de que la proposición u oferta sea formulada por un candidato en representación de varias entidades que actuarían de forma conjunta, el volumen global de negocios podrá acreditarse mediante la suma del obtenido por cada una de las entidades partícipes que comprometan o representen al menos el 25% del capital social de la sociedad de propósito específico que constituirá el adjudicatario.***

*Aurrekoa egiaztatzeko, lizitatzailleek urteko kontuak aurkeztu beharko dituzte behar bezala onartu, ikuskatu eta gordailututa. Kontu horietan sozietatearen azken hiru ekitaldi amaituen emaitza orokorra agertu beharko da.*

*Para acreditar lo anterior, los licitadores deberán presentar las cuentas anuales, debidamente aprobadas, auditadas y depositadas, en las que se ponga de manifiesto el resultado global en los tres últimos ejercicios sociales cerrados.*

b) *Berezko funtsen adierazpena, 2015eko ekitaldian funts horiek 120 milioi eurotik gorakoak izan zirela egiaztatzea.*

b) *Declaración de fondos propios en la que se acredite que los mismos superaron los 120 millones de euros en el ejercicio 2015.*

***Proposamena edo eskaintza hautagai batek elkarrekin jardungo luketen erakunde ugariren ordezkari modura egingo balu, parte hartzen duen erakunde bakoitzak eskuratutako zenbatekoarekin egiaztatu ahal izango da berezko funtsen zenbatekoa, betiere, erakunde horietako bakoitzak esleipendunak eratuko duen helburu jakineko sozietatearen kapital sozialaren % 25 ordezkatzeko badu.***

***En caso de que la proposición u oferta sea formulada por un candidato en representación de varias entidades que actuarían de forma conjunta, el importe de fondos propios podrá acreditarse mediante la suma del obtenido por cada una de las entidades partícipes que comprometan o representen al menos el 25% del capital social de la sociedad de propósito específico que constituirá el adjudicatario.***

*Aurrekoa egiaztatzeko, lizitatuak urteko kontuak aurkeztu beharko dituzte behar bezala onartu, ikuskatu eta gordailututa. Kontu horietan sozietatearen azken hiru ekitaldi amaituen emaitza orokorra agertu beharko da. Lizitatuak aurreko a) betekizuna betetzeko dokumentazio hori aurkeztu badu, ez da beharrezkoa izango berriro dokumentazioa aurkeztea.*

*Para acreditar lo anterior los licitadores deberán presentar las cuentas anuales, debidamente aprobadas, auditadas y depositadas, en las que se ponga de manifiesto el resultado global en los tres últimos ejercicios sociales cerrados. La aportación de esta documentación no será necesaria en este caso si el licitador la aporta para cumplir el requisito a) anterior.*

*Lizitatuaren izaera juridikoa edozein izanik ere, ikuskatutako azken ekitaldiko balantzearen pasiboan metatutako aurreko ekitaldietako erreserbak negatiboak ez izatea eskatuko da”.*

*Cualquiera que sea la forma jurídica del licitador, se exigirá que las reservas acumuladas de los ejercicios anteriores en el pasivo del balance del último ejercicio auditado no sean negativas.”*

Ikusten dugunez, pleguan ez da eskatzen lizitatu-ekarte bateko kide diren enpresa guztiek berezko gutxienezko kaudimen ekonomikoa bete behar dutenik, baizik eta kaudimen ekonomikoa elkarteko kide batek edo gehiagok aurkezteko aukera ematen duela, betiere, kide horien partaidetza % 25etik gorakoa bada etorkizuneko sozietate emakidadunean.

Vemos, pues, que el pliego no exige que todas y cada una de las empresas que formen parte de una agrupación de licitadores tengan que cumplir un mínimo de solvencia económica propia, sino que permite que la solvencia económica pueda ser acreditada por uno solo o por varios de los miembros de la agrupación, siempre que tales miembros participen en más de un 25% en la futura sociedad concesionaria.

Erakunde kontratatzaileak horretarako denbora baliadunaren barnean gai horri dagokionez egindako bi kontsultei emandako erantzunak hala berresten dute. 2016ko abuztuaren 16an URBASER sozietateak zera galdetu zuen (89. kontsulta): “*Enpresa-ekarte batekin batera bere eskaintza aurkezten duen lizitatu-ekarte batek (bere partaidetza elkarrekin horren interesaren % 25etik gorakoa izanik) bere kaudimen ekonomiko eta finantzarioa justifikatzen badu urteko negozioen bolumen orokorrari buruzko deklarazio bat aurkeztuta, 300 milioi euroko kopurua berdindu edo gainditzen duela egiaztatuz, eta berezko funtsak 2015eko ekitaldian 120 milioi eurotik gorakoak izan zirela deklarazten badu, beharrezkoa izango litzateke kontsultarioko gainerako lizitatuak aurkeztea (i) bere nagusiaren konpromiso espezifikoaren gutuna edota (ii) urteko kontuak, behar bezala onartu, ikuskatu eta gordailutatuak, non sozietateak azken hiru ekitaldi amaituetako emaitza orokorra agertzen den?”.*

Lo corroboran las respuestas dadas por la entidad contratante a dos consultas formuladas en el tiempo hábil para ello en relación con esta cuestión. El 16 de agosto de 2016 URBASER preguntó (consulta nº 89): “*En el caso de que uno de los licitadores que presenta su oferta de manera conjunta con una agrupación de empresas (cuya participación fuese mayor a un 25% del interés de esta agrupación) justifique su solvencia económica y financiera mediante la presentación de una declaración sobre el volumen global de negocios en cómputo anual que acredite que iguala o excede la cantidad de 300 millones de euros y declare que sus fondos propios superaron los 120 millones de euros en el ejercicio 2015, ¿sería necesario que cada uno del resto de licitadores del consorcio aportase (i) la carta de compromiso específico de su matriz y/o (ii) las cuentas anuales, debidamente aprobadas, auditadas y depositadas, en las que se ponga de manifiesto el resultado global en los tres últimos ejercicios sociales cerrados?”.*

Erantzuna honakoa izan zen: “*BABAko 18.2.2. klausularen arabera, proposamena edo eskaintza hautagai batek elkarrekin jardungo luketen erakunde ugariaren ordezkari modura egingo balu, parte hartzen duen erakunde bakoitzak*

La respuesta fue la siguiente: “*De acuerdo con la cláusula 18.2.2 del PCAP, en caso de que la proposición u oferta sea formulada por un candidato en representación de varias entidades que actuarían de forma conjunta, el volumen*



*eskuratutako zenbatekoarekin egiaztatu ahal izango da negozio-bolumen orokorra, betiere, erakunde horietako bakoitzak esleipendunak eratuko duen helburu jakineko sozietatearen kapital sozialaren % 25 ordezkatzeko badu gutxienez. **Horrenbestez, kaudimen finantzarioa egiaztatzen duen lizitazailerako enpresak etorkizuneko helburu jakineko sozietatearen % 25 konprometitu edo ordezkatu beharko du.***

Eta abuztuaren 22an VALORIZA sozietateak zera galdetu zuen (292. kontsulta): “Eskatutako negozio-bolumen orokorrari dagokion epealdi naturala argitzea eskatzen da”. Horrela erantzun zitzaion: “300 milioi euroko kopurua berdindu edo gainditzen duen urteko negozio-bolumen orokorrari dagokio. **Kaudimen hori, enpresa-eltarteak parte hartuz gero, talde hori osatzen duen enpresa batek edo gehiagok egiazta dezakete, betiere, osatuko den helburu jakineko sozietatearen kapital sozialaren % 25 batzen badute**”.

Bada, esleipendunak aurkeztutako 1. gutun-azalean bada 2016ko urriaren 26ko data duen eta taldea osatzen duten sei enpresatako ordezkariak sinatutako dokumentu bat, zeinaren arabera, esleipendun izanez gero, elkarrekiko konpromisoa hartzen baitute solidarioki Administrazio Kontratatuaren aurrean haien izenean helburu jakineko sozietate emakidadun bat eratzea, kontratuaren titular izango dena, administrazio klausulen pleguko 25. klausulan ezarritako betekizunekin bat eginez, sozietate horretan enpresa bakoitzak zeukan partaidetza ondoko hau izanik:

MERIDIAM INVESTMENTS SAS, % 50  
URBASER S.A., % 46  
ALTUNA Y URIA S.A., % 1  
CONSTRUCCIONES MOYUA S.L., % 1  
CONSTRUCCIONES MURIAS S.A., % 1  
LKS INGENIERÍA S.COOP., % 1

Halaber, urteko kontuak, negozioen zifra orokorraren deklarazioa eta azken ekitaldietako

*global de negocios podrá acreditarse mediante la suma del obtenido por cada una de las entidades partícipes que comprometan o representen al menos el 25% del capital social de la sociedad de propósito específico que constituirá el adjudicatario. Por lo tanto, la empresa de la agrupación licitadora que acredite la solvencia financiera deberá comprometerse o representar el 25% de la futura sociedad de propósito específico”.*

Y el 22 de agosto VALORIZA preguntó (consulta nº 292): “Se solicita aclaración del periodo natural al que debe corresponderse el volumen global de negocios exigido”. A lo que se respondió en los siguientes términos: “Se refiere al volumen global de negocios en cómputo anual que iguale o exceda la cantidad de 300 millones de euros. **Esta solvencia puede acreditarse, en el caso de concurrencia en agrupación de empresas, por una o varias de las empresas de las que conformen el grupo cuando reúnan el 25% del capital social de la sociedad de propósito específico que se formará**”.

Pues bien, consta en el sobre nº 1 presentado por la adjudicataria un documento fechado el 26 de octubre de 2016 y suscrito por los representantes de las seis empresas que forman la agrupación, en virtud del cual, para el supuesto de resultar adjudicatarios, se comprometen conjunta y solidariamente ante la Administración contratante a formalizar en nombre de ellas la constitución de una sociedad concesionaria de propósito específico que será la titular del contrato, de conformidad con los requisitos establecidos por la cláusula 25 del pliego de cláusulas administrativas, con una participación societaria en la citada sociedad del:

MERIDIAM INVESTMENTS SAS, 50%  
URBASER S.A., 46%  
ALTUNA Y URIA S.A., 1%  
CONSTRUCCIONES MOYUA S.L., 1%  
CONSTRUCCIONES MURIAS S.A., 1%  
LKS INGENIERÍA S.COOP., 1%

Constan asimismo las cuentas anuales, la declaración de cifra global de negocios y la

berezko funtsei buruzko deklarazioa barneratzen dira, URBASER S.A. sozietateak aurkeztuak. Horietatik ondorioztatzen da 2013., 2014. eta 2015. urteetan sozietate hark 300 milioi euroko kopurua gainditu zuela erruz eta hura 120 milioi eurotik gorakoa izan zela.

Eta, finean, barneratzen da, esleipendunak arrazoibide-idatziarekin eskritura gaineratzen baitu, 2017ko otsailaren 8an Donostian EKONDAKIN ENERGÍA Y MEDIOAMBIENTE, S.A. izeneko sozietate emakidaduna eratu zela, non URBASER S.A. sozietateak hainbat akzio dituen, kapital sozialaren % 46 ordezkatuz.

Ondorioz, pleguan kaudimen ekonomiko eta finantzarioari dagokionez eskatzen den betekizuna egiaztatu egin da, pleguan bertan aurreikusten den moduan, elkarteko enpresa baten bidez. Enpresa horrek sozietate emakidadunaren kapital sozialaren % 25 baino gehiago ordezkatzen du. Horrenbestez, argi dago esleipendunaren eskaintza ezin dela baztertu betekizun hori ez duela bete argudiatuta.

